FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Talde honen helburua, enpresa denena bezala, diru sarrerak lortzea eta bezeroak pozik egotea da. Horretarako hainbat baliabide erabiliko ditugu.

Baliabide fisikoak: taldeko bakoitzak mobil bat edukitzea, ordenagailu bat taldekoentzat (proiektua hasten doan arabera, ordenagailu gehiago erosten joango gara), eta horrez gain, lokal bat alkilatuko dugu denentzat (bertan lan egiteko).

Baliabide intelektualak: Jonen sormena daukagu ideia berriak sortzeko eta Danelen abilezia webguneak sortzeko. Markelek, hornitzaileekin negoziatu eta dena ondo doala zihurtatuko du eta Jokin taldeko moderaitzailea izango da eta bezeroen zalantzak argituko ditu.

Finantza baliabideak: taldekide bakoitzaren aurrezkiak proiektua egiteko erabiliko ditugu hasiera batean. Eta ondoren, proiektua hasten doan arabera, inbertsore berriak sartzen joan daitezen esperantza daukagu.